

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 3 milioi inguru bideratu ditu baso- lanetarako

Toki erakundeak zein elkarte eta eragile pribatuak izanen dira onuradunak

Asteazkena, 2018.eko abuztuak 22

Nafarroako Gobernuak gaurko saioan hartutako erabakiaren arabera, 2.950.000 euroko gastua egiteko baimena eman dio Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiari 2020ko aurrekontuen kargura, toki erakundeek nahiz elkarte eta eragile pribatuek 2029/2020 kanpainan gauzaturiko baso-lanen deialdiak sustatzeko xedez.

2.950.000 euroko guztizko zenbateko horretatik, 2,5 milioi toki erakundeek sustatutako baso-lanetara bideratuko dira eta gainerako 450.000 euroak elkarte eta eragile pribatuetara.

FEADERek (Europako Landa Garapenerako Nekazaritza Funtsa) kofinantzatutako lan hauek Nafarroako 2014-2020ko Landa Garapenerako Programari atxikita daude, eta besteak beste, baso-ekosistemen egokitze-ahalmena eta ingurumen-balioa areagotu, baso-suteak prebenitu eta gaixotasunek edota bestelako baso-hondamendiek kalteturiko basoak leheneratzea xede duten basogintza arloko jarduketak bilduko dituzte. Horrez gain, inbertsioak erakarri nahi dira baso-teknologietarako eta baso-produktuen transformazio, mobilizazio eta komertzializatorako zein mendien antolamendurako.